

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

1579

EBAZPENA, 2022ko martxoaren 29koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, Euskara eta Euskal Kulturako hiru irakurle hautatzeko Hautapen Batzordearen osaera xedatu eta argitaratzen duena.

2022ko martxoaren 25ean argitaratu zen EHAA 2022ko martxoaren 16ko Ebazpena, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, Txekiar Errepublikako Brnoko Masaryk Unibertsitaterako eta Pragako Karlova Unibertsitaterako, Irlandako Corkeko Unibertsitaterako eta Italiako Veneziako Ca'Foscari Unibertsitaterako eta Boloniako Alma Mater Studiorum Unibertsitatetarako irakurleak hautatzeko deialdia irekitzen duena.

Ebazpen horren 10. artikuluan xedatzen da deialdira aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebatzatzeko Hautapen Batzordea eratuko dela.

Hori dela eta,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Aipatutako hautapen batzordea osatuko duten kideak izendatu eta ezagutzera ematea. Honako hauek izango dira batzordekideak:

Lehendakaria: Garbiñe Iztueta Goizueta andrea, Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria edo ordezkoa.

Kideak:

- Elixabete Perez Gaztelu andrea, edo ordezkoa.
- Larraitz Ariznabarreta Garabieta andrea, edo ordezkoa.
- Miren Ibarluzea Santisteban andrea, edo ordezkoa.
- Maitena Duhalde De Serra andrea, edo ordezkoa.
- Asier Amezaga Etxebarria jauna, edo ordezkoa.

Idazkaria: Eneko Agirre Maiora, Etxepare Euskal Institutuko euskara eta kultura sustatzeko teknikaria, edo ordezkoa.

Bigarrena.– Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Donostia, 2022ko martxoaren 29a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
IRENE LARRAZA AIZPURUA.